

**PRAKTIKA PSIKOMOTORRERAKO  
HOBEKUNTZA ILDOAK: GOIZEKO IZARRA  
IKASTOLAN ESKUHARTZE PRAKTIKOA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Gomez Malave, Leire.

ZUZENDARIA: Lizarraga Gomez, Iraitz.

**2019-2020**

## LABURPENA:

Gradu Amaierako lan honetan psikomotrizitate arloko aditu batzuen ikuspegiak aztertzeaz gain, Bernard Aucouturierren metodologia eta praktika psikomotorra abiapuntutzat hartuz, zenbait psikomotrizitate saio azertu ditut, ahuleziak detektatu eta hobekuntza ildoak proposatu ahal izateko.

Horretarako, Mutrikun kokatuta dagoen Goizeko Izarra ikastolako lau urteko gelako bost psikomotrizitate saio behatu eta ondorio ezberdinak atera ditut. Ondorio horietan oinarrituz proposamen praktikoa bat gauzatu dut.

**Hitz gakoak:** Aucouturier, metodologia, Praktika Psikomotorra, ahuleziak, indarguneak, proposamen praktikoa.

## RESUMEN:

En el presente Trabajo de Fin de Grado, además de analizar las perspectivas de diferentes autores del ámbito de la Psicomotricidad, se han analizado una serie de sesiones de psicomotricidad, tomando como punto de partida la práctica psicomotriz basada en la metodología de Bernard Aucouturier. El objetivo finalidad ha sido detectar los puntos débiles y plantear propuestas de mejora de dichas sesiones.

Para ello, se han observado cinco sesiones de psicomotricidad de alumnos del cuarto curso de Educación Infantil del centro público Goizeko Izarra, ubicado en Mutriku. A partir de las conclusiones obtenidas, se ha planteado una propuesta práctica.

**Palabras clave:** Aucouturier, metodología, Práctica Psicomotriz, puntos débiles, puntos fuertes, propuesta práctica.

## AURKIBIDEA:

<b>1. MARKO TEORIKOA</b> .....	3
1.1 PSIKOMOTRIZITATEA .....	3
1.2 ACOUTURIERREN METODOLOGIA.....	4
1.2.1 ESPAZIOA .....	5
1.2.2 DENBORA .....	7
1.2.3 PSIKOMOTRIZITATE SAIOAREN ATALAK .....	10
A) HASIERAKO ERRITUALA .....	10
B) ADIERAZKORTASUN MOTORRA.....	11
C) HIZKUNTZAREN FASEA .....	13
D) ADIERAZKORTASUN PLASTIKO ETA GRAFIKOAREN FASEA .....	13
E) AMAIERA ERRITUALA.....	14
F) MATERIALA JASOTZEA.....	14
1.2.4 HEZITZAILEAREN PAPERA.....	14
<b>2. HELBURUAK</b> .....	17
<b>3. METODOLOGIA</b> .....	17
3.1 BEHAKETAK .....	18
3.2 TESTUINGURUAREN DESKRIBAPENA .....	19
3.2.1 IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA.....	19
3.2.2 GELARI BURUZKO DESKRIBAPENA.....	20
<b>4 PROPOSAMEN PRAKTIKOA</b> .....	22
<b>5 ONDORIOAK</b> .....	26
<b>6 ERREFERENTZIAK</b> .....	28
<b>7 ERANSKINAK</b> .....	30

## 1. MARKO TEORIKOA

### 1.1 PSIKOMOTRIZITATEA

Zer da psikomotrizitatea? Psikomotrizitatea azaltzeko gaur egun definizio ugari aurkitzen dira. Tapia, Azaña eta Titoren (2014) hitzak kontuan hartuz psikomotrizitatea norberaren mugimenduaren bidez, garapen fisiko, psikiko eta intelektuala lantzea da. Vizcarrak (2007) aldiz, psikomotrizitatea heziketa metodologia edota teknika zehatz bat baino gehiago dela dio, behin eta berriz heziketaren filosofia bat dela azpimarratuz, bizitza ulertzeko ezinbestekoa.

Paniaguak eta Palaciosen (2005) esanetan, psikomotrizitateak garrantzi handia dauka batez ere haurtzaroan. Izan ere, garapen eta eraikuntza psikologikoarekin lotura zuzena du. Hori horrela izanik, haurraren garapenean, osotasunean, heziketan, ikaskuntza prozesuan, etab. ezinbestekoa da munduan eta inguruan aurkitzen diren elementuez ohartzeko eta norberarekin, besteekin eta objektuekin interakzioa sortzeko. Psikomotrizitatea ez da teknika bat soilik, pentsatzeko eta ekiteko modu bat da, filosofia bat; hezigarria izan ohi da haurraren autonomia garatzen laguntzen duelako eta baita nortasuna eraikitzen laguntzen duelako ere (Barruezo, 2000).

Historian zehar hainbat autorek garapen psikomotorrari buruz ikerketak egin eta teoriak argitaratu izan dituzte. Ondorengo taulan autore ezagunenek ekarpenak laburbilduta jasotzen dira (Vizcarra, 2007):

1. taula. Autore ezagunen ekarpenak (Vizcarra, 2007)

<b>AUTOREA</b>	<b>TEORIA</b>	<b>EZAUGARRIAK</b>
Wallon	Psikobiologikoa	Mugimenduaren eragina funtzio psikologikoak eratzeko
Piaget	Garapen psikologikoa	Mugimenduaren garrantzia nortasuna eratzeko

Gessell	Heldutasuna	Heldutasunak eragiten du garapen egokitzailera, sozial, motor eta ahozkoa
Vigotsky	Ezagutzaren eraikuntza	Ingurune sozio-kulturalaren eragina ikaskuntza-prozesuetan
La Pierre Freud Aucouturier	Psikoanalistak	Pertsonen arteko harremanen eragina

Bernard Aucouturier hartu dut nire ikerketa lanaren oinarri gisara eta hark proposatutako metodologia eta faseak aplikatzeko aukera izan dut Goizeko Izarra ikastolako lau urteko gelan. Aucouturierren planteamendua praktikara eraman nahi izan dut, metodologia zehatz honen indargune eta puntu ahulak ezagutzeko, etorkizunerako hobekuntza ildoak proposatzeko helburuarekin.

Lehen pausua beraz, psikomotrizitate gelan burututako bost saio behatzea izan da: espazioa eta denbora behatzeaz gain, irakaslearen papera eta saio bakoitza nola dagoen egituratuta behatu ditut, besteak beste. Ondoren, saio horietan aurkitutako ahuleziak detektatu eta horiek indartzeko asmoz, Aucouturierren praktika psikomotorrean oinarrituz eta testuingurua kontuan hartuz.

Psikomotrizitate saio bat prestatu dut, autoreak proposatzen dituen sei faseak aplikatuz; sarrera errituala, adierazkortasun motorren fasea, hizkuntzaren fasea, adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea, materiala jaso eta irteera errituala. Saio bakarra eraman ahal izan dut aurrera eta beraz, ikerketaren esparrua mugatua da; urte osoko jarraipena egitea izango litzake ideala. Baina honela lan ildoak eta metodologia finkatu ahal izan dut eta etorkizunerako ikerketa zabalago bati atea irekita uzten diot.


## 1.2 ACOUTURIERREN METODOLOGIA

Aucouturierren metodologia hurraren behaketan oinarrituta dago. Metodologia honen helburu nagusiak komunikazioa eta sormena landu eta hurrari deszentratze prozesuan laguntzea dira. Egituratutako ariketak alde batera uzten ditu eta garrantzia

ematen dio ekintza askatasunari eta bat-bateko ekintzari (Beñaran, 2017). Umeak bere kabuz mugitzeko, esperimentatzeko, jolasteko eta komunikatzeko aukera du, beti ere, haurrentzat aproposa delarik. Horrela umea protagonista bihurtzen da eta mundua deskubritu eta aztertzeo aukera du (Vizcarra, 2007).

Hori kontuan izanik, Aucouturierrek Praktika Psikomotorra sortu zuen, funtzio sinbolikoaren garapenari laguntzeko, sinbolizazio-maila desberdinetatik igartzeko, segurantzaren prozesuen garapenari laguntzeko, larriminetatik askatzeko eta deszentratze-prozesuaren garapenari laguntzeko (Aucouturier, 2011). Orokorrean, praktika psikomotorraren bidez haurrari bere garapen ibilbidean laguntzea da helburua, ekintzatik eta jolasetik abiatuta (Aucouturier In Hik Hasi, 2004).

## 2. eskema. Praktika Psikomotorraren funtzioa (Aucouturier, 2011)





### 1.2.1 ESPAZIOA

Praktika psikomotorra aurrera eramateko espazioaren antolaketak berebiziko garrantzia du. Haurrak gelara sartu baino lehen, psikomotrizitate gela bi zatitan banatzen da: alde batetik adierazkortasun motorraren gunea, mugimenduarekin lotura duena eta bestetik, adierazkortasun grafiko eta plastikorako espazioa. Lehenengo zatia, handiagoa izango da, mugimenduarekin lotura duelako eta bertan jarduerak egiteko

material zehatz batzuk aurkitzen dira. Esate baterako, ispilua, horma-barrak, pilotak, oihalak, koloretako eta tamaina ezberdineko oihalez estalitako kuxinak eta uztaiak. Bigarren zatia, ordea, lehenengo zatiarekin alderatuz, txikiagoa izango da bertan mugimendu gutxiago egoten delako. Zati honetan ere material zehatza egongo da marrazteko eta eraikitzeko (Aucouturier, 2011).

### 3. irudia. Goizeko Izarra ikastolako psikomotrizitate gela



Psikomotrizitateko aretoa zabala, altua eta argitsua izateaz gain, haurrentzat erakargarria izan behar da eta bertan aurkitzen diren materialak egoki zaindu behar dira baita garbi mantendu ere (Aucouturier, 2011). Garrantzitsua da baita, gela eroso izatea eta giro atsegina sortzea horrela haurrari mugitzeko eta jolasteko gura pizten zaio. (Pacheco, 2015).

## 1.2.2 DENBORA

Saioa hiru unetan bereizten da eta zati bakoitzak bere denbora izango du. Lehenengo eta behin, adierazkortasun motorrari eskainiko zaio denbora. Ondoren, haurrari kontatuko zaion istorioari eta amaitzeko, adierazkortasun plastiko eta grafikoari. Hiru fase horiek, hasierako erritualarekin eta amaierako erritualarekin osatuko dira (Aucouturier, 2011).

### 4. eskema. Praktika psikomotorreko saioak (Aucouturier, 2011)



Hori kontuan izanik, saioak iraupen bat izango du haurren adinaren arabera. Iraupen egokia 60 minutukoa da, baina bi urteko hurrekin edo bost urteko hurrekin egindako saioak ez du iraupen berdina izango. Bi urtekoekin saioaren iraupena laburragoa izango da eta bost urteko haurren saioa luzeagoa izan daiteke 80 minutura ailegatuz (Aucouturier, 2011).



Gaur egungo errealitatean ordea kasu askotan saioaren iraupena oso laburra izaten da: ikastetxe askoren plangintzan ez zaio psikomotrizitateari nahiko denbora eskaintzen edota ez zaio behar duen garrantzia ematen nire ustetan. Baliteke askorentzat psikomotrizitatea ongi pasatzeko momentu simple bat izatea eta honek eskaintzen duen onuraz ez ohartzea lehenetsuna beti beste ikasgaiko edukiei ematen zaiolako (Garcia, 2018). Nire ustez beharrezkoa da gorputzari eta mugimenduari merezi duen garrantzia ematea hezkuntzan; Eider Salegi, Haur Hezkuntzako diplomatuaren hitzek ederki laburbiltzen dute behar hori:

“Orokorrean, toki gutxi hartzen du gorputzak eskolan. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan badu presentzia, bestek beste garapen motorra zutabeetako bat delako, baina Haur Hezkuntzako bigarren zikloan jada, batez ere azken urteetan, alde kognitiboari garrantzi handiagoa ematen hasten gara eta Lehen Hezkuntzatik datorkigun presioagatik, alderdi kognitiboa landu behar horrekin haurrak bideratzen ditugu eserita eta mahaietan idatzizko jarduerak edo fitxak egitera. Kezkagarria da, iruditzen zaigulako haurrak ohitu egin behar ditugula eserita egotera, eta gorputza alde batera uzten dugu. Baina pertsonak izate globalak gara eta ezin ditugu burua eta gorputza banandu; globaltasun hori ulertzen hasten garen unean ziurrenik gure egiteko moduetan ere aldaketak antzemango ditugu” (Salegi In Garcia, 2018).

Nire esperientzian, lehenengo eta bigarren praktikaldian, ikusi ahal izan dut irakasle askok, denbora faltagatik edo, ez dituztela praktika psikomotorrerako proposatzen diren saio guztiak aurrera eramaten. Batzuk, istorioaren atala salto egiten dute eta beste batzuk, ordea, adierazkortasun plastiko eta grafikoa. Orokorrean, behatu ahal izan dudanaren arabera, beti uzten dute nahiko denbora sarrera erritualari eta adierazkortasun motorrari. Beraz, nire ustetan beharrezkoa da saioaren faseak iraupenaren aldetik ondo antolatzea eta haurra fase guztietatik igarotzea ezinbestekoak baitira fase guztiak haurra sinbolizatze maila guztietatik igarotzeko prozeduran.

Hirugarren praktikaldia eta lan hau aurrera eraman dudan eskolan, Goizeko Izarra ikastola lau urteko gelan, saioaren iraupena bi ordukoa izaten da

eta Aucouturierrek proposatutako fase guztietatik igarotzeko denbora nahikoa dago. Kasu honetan, ordea, saioaren antolaketan dago arazoa, nire ustetan psikomotrizitate saioa ez dago ondo antolatuta, izan ere, Praktika Psikomotorraren (Aucouturierren eredua aintzat hartuta) fase guztiak eta atal batzuk ez dira aurrera eramaten. Esate baterako, istorioa, adierazkortasun plastiko eta grafikoa eta materiala jasotzea.

### 5. eskema. Praktika psikomotorreko saioak (Aucouturier, 2011)



Irakasleak ez du Bernard Aucouturierren metodologiaren inguruko formakuntza espezifikorik, nahiz eta bere saioetan autoreak ezarritako hainbat puntu praktikara eraman, ez ditu ezaugarri eta pausu guztiak betetzen. Nire ustez kasu hau orokorrean ematen den hutsune baten sintoma da: eskolan zein unibertsitatean ez zaio merezi duen pisua eman psikomotrizitateari eta etorkizuneko irakasleak euren kabuz formatzera behartuak daude arlo honetan.

Material aldetik, aldiz, ez dago arazorik. Psikomotrizitate gelan ispilua, koltxonetak, goma-aparreko bloke handiak, hormako barrak, igotzeko sokak eta zintzilikatzeko sokak aurkitzen dira, eta material gelan; oihalak, mantak, goma-aparreko makilak, paperak, aroak eta puxikak. Irakasleak saioan zehar material ezberdinak ateratzen ditu haurraren plazerra eta beharren arabera.

### 1.2.3 PSIKOMOTRIZITATE SAIOAREN ATALAK

Arestian aipatu dudan bezala, Aucouturierren Praktika Psikomotorra sei fase ezberdinez osatuta dago. Fase bakoitzak bere eginkizuna izateaz gain, espazio eta material espezifikoa du. Hona hemen atal bakoitzeko ondoz ondoko edukiak (Aucouturier, 2011):

#### A) HASIERAKO ERRITUALA

Hasierako erritualarekin hasiera emango zaio praktika psikomotorrari. Haurrak psikomotrizitate gelara sartu, oinetakoak eta berokiak kendu eta gela nola dagoen antolatuta ikusiko dute espazioa ondo ikusteko aukera eskaintzen duen leku batean eserita, banku batean, hain zuzen ere.

Aucouturierrentzat une hau oso garrantzitsua da, izan ere, haurrari jolasten hasteko eta mugitzeko gogoaz gain, segurtasun osoz beldurra, plazerra eta desirak azaltzeko toki aproposa bihurtzen da eta haurra eta hezitzailearen arteko interakzioa sortzeko une aproposa da :

- Lehenengo eta behin, psikomotrizitate gela barruan onartzen ez diren hainbat jokaera partekatuko dira. Hau da, denen artean arauak ezarri eta birpasatzen dituzte. Esate baterako; ezin da beste kidea jo, materialak errespetatu egin behar dira, etab.
- Bigarrenik, gelaren antolaketaz hitz egiten da. Hots, hezitzaileak gelan bi espazio aurkitzen direla azalduko du eta bakoitzean material espezifikoa erabiltzen dela. Beraz, irakaslearen abisurik gabe ezin da beste espaziora igaro.

- Hirugarrenik, irakasleak blokez eraikitako horma aurkezten du. Haurrak eraikina ikusi dezakete baina irakaslearen baimenik gabe ezin dute suntsitu. Une honek hurrei ezinegona sortarazten die, urduri jartzen dira, izan ere, suntsipenaren jolasari hasiera ematen zaio eta horretarako desioa dute. Oso garrantzitsua da haurren barnean ezinegon hori sortzea gerora tentsioa askatzeko aukera izango duelako.

Hezitzaileak egoera hori aprobetxatu behar du eta haurrak tentsio egoera horretan mantentzen jakin behar du. Denen artean eraikina suntsituz barneko emozio kolektiboa askatzea da helburua. Emozioz bizitzen dute talde lanean egiten duten ekintza hau baina ez dute beti pozez bizitzen, badira beldurtzen diren haurrak eta blokeatuta geratzen direnak ere.

## B) ADIERAZKORTASUN MOTORRA

Fase honen abiapuntua suntsipena da. Behin horma suntsituta, adierazkortasun motorraren faseari hasiera ematen zaio: normalean haurrak ziztu bizian eta etengabe jolasten hasten dira txoko ezberdinetatik igaroz eta material ezberdinak erabiliz. Askatasun osoz, jauziak, birak eta lasterketak egiten hasten dira gehienetan.

Adierazkortasun motorra haurren berezko ezaugarri bat da, hots, munduan izateko eta egoteko modua da eta hori gorputzaren adierazpenaren bidez, jolasteko moduaren bidez, erabiltzen den materialaren bidez, etab. adierazten da (Beñaran, 2017).

Atal honetan jolasa da nagusi eta ezin da ukatu jolasak pisu handia duela haurtzaroan, Gorputz Adierazpena lantzeko ezinbestekoa baita (Agudo, 1990). Vizcarraren (2007) hitzak kontuan hartuz, haurren bizitzan jolasa berezko jardura bat da, naturala, bat batekoa eta ezinbestekoa nortasuna sendotzeko. Jolasaren bidez haurrak hainbat lorpen gauzatzen ditu; ingurua miatzea, sormena garatzea eta emozioak kanporatzea, esate baterako.

Jolasa, mugimendua eta askatasunarekin lotzeaz gain, utopiarekin eta sormenarekin ere erlazionatu daiteke, azken honek akzioa eta artea lotzen baititu. Jolasaren bitartez, pentsamendu kritikoa landu eta garatzeaz gain, garapen soziala eta pertsonala ere bermatzen dira. Jolasaren bitartez, haurra etengabe ezagutza berriak bereganatzen ari da (Abad, 2011).

Jolasaren funtzio hezitzaileari dagokionez, autore ezberdinen iritziak kontutan hartu ditzakegu; Piagetek egokitzapenari buruz hitz egiten du; hau da, norberaren jokaera ingurura egokitzen da eta jolasa horren seinalea da (Piaget In Vizcarra, 2007). Wallonek ordea, imitazioa azpimarratzen du; umeak etengabe errepikatzen du ikasi duena, imitatu egiten du eta horren bidez, haurrak esploratu egiten du (Wallon, In Vizcarra, 2007). Vigotskyrentzat berriz, akzio ludikoak lotura handia du testuinguruarekin (Quiros eta Arraez, 2005).

Fase honetan jolas sinbolikoa ere ikusi daiteke; jolas sinplea non inprobisazioa eta bat-batekotasuna nahasten diren. Honela definitu genezake jolas sinbolikoa: “Una situación interactiva, recíproca y sincronizada donde los/las niños/as adoptan diversos roles, situándose alternativamente en uno u otro punto de vista, representan objetos, personas, acciones” (Mayor In Morón, 2011, 1 or). Gainera, Vizcarrak (2007, 103 or.) dioen bezala “jolas sinbolikoa banakakoa edo kooperatiboa izan daiteke”.

Piageten esanetan jolas sinbolikoa bi urterekin hasten da garatzen eta poliki-poliki, haurra gizarte errealitatea islatzen hasten da. Errealitatea ezagutzen eta kontrolatzen hasten da eta aldi berean bere burua ezagutzen joango da, beste pertsonekin harremanetan jartzen da eta haiei buruzko ezagutzak lortzen ditu. Eta nola ez, rolei buruzko ezagutzak ere eskuratzen ditu (Lizaso, Reizabal, Aizpurua, eta Sanchez, 2013).

Jolas sinbolikoarekin batera, beste ekintza batzuk ere ikusi daitezke fase honetan; suntsipenezko jolasak, nork bere burua biltzeko jolasak, nork bere burua ezkutatzeko jolasak, betetzeko jolasak, husteko jolasak, jazarria izateko jolasak, elkartzeko eta bereizteko jolasak eta erasotzailearekin identifikatzeko jolasak. Jolas horiek segurantza sakoneko jolasak dira, jolas unibertsalak. Amarengandik urruntzeko, hura galtzeko eta suntsitua izateko beldurrarekin lotura dute, deskarga emozionalak eraginez. Kasu honetan hezitzailearen papera garrantzitsua da. Haurrari espazio lasai eta egoki batean dagoela sentiarazi behar dio, bien arteko komunikazioa sustatu ahal izateko. Hezitzailearen eginkizunetako bat haurra protagonista bihurtzea da eta haurraren jolasa eta ekintza ulertu, jaso eta interpretatu egin behar du erantzun egoki bat eman ahal izateko eta beharraren arabera proposamen bat aurrera eraman ahal izateko (Aucouturier, 2011).

### C) HIZKUNTZAREN FASEA

Adierazkortasun motorraren fasea amaitu eta gero, haurra sinbolizazio maila ezberdinetatik igarotzen laguntzeko haurrari ipuin bat kontatuko zaio. Komeni da, ipuinek bi erregistro izatea, batetik beldur puntu bat sortu behar du haurrengan baina bestetik segurtasun emozionala sorrarazi behar die, haiek segurtatzeko. Hots, garrantzitsua da, kontatutako istorioan heroiak irabaztea edota sendotuta irtetzea. Istorioan errepikapena agertzea ere komeni da, ezaguna dena behin eta berriz entzuteak segurtasuna transmititzen die haurrei. Esate baterako, bi erregistro horiek *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Kruz, 1998) eta *Sorgina Kirris Karras* (Meroto, 2017) liburuan ikusi daitezke.

### D) ADIERAZKORTASUN PLASTIKO ETA GRAFIKOAREN FASEA

Hizkuntzaren faseari amaiera eman ostean adierazkortasun plastiko eta grafikoari hasiera emango zaio, saio osoan zehar bizi izandakoa adierazteko helburuarekin. Horretarako, bigarren espazioa erabiliko da eta haurrei bertara igarotzeko esango zaie. Espazio honetan haurrak bi aukera izango dute, marraztekoa edo eraikitzekoa. Aukera hori librea izango da, norberak erabakitzen du zer egin nahi duen. Alde batetik, eraikinak lurrean egiten dira zurezko materialak erabiliz. Hemen sorkuntza kolektiboa izaten da orokorrean, hau da, hasiera batean haurrak banaka hasten dira eraikitzen baina denbora aurrera doan heinean, elkartzen joaten dira ideia komun bat gauzatzuz. Jolas hau baliagarria da sinbolizazio gaitasuna garatzeko (Aucouturier, 2011). Gainera, eraikinak egiteko gai dela ikusteak bere buruarengan segurtasuna ematen dio; talde lanean aritzeak, ordea, konfiantza eta segurtasuna ematen dio beste ikasleekin konplizitatea eta elkarren arteko harremana sortuz; askotan zerbait eraiki eta ondoren puskatu egiten dute eta puskatze une horretan hasieran sustoa ematen badie ere, gerora ezer geratzen ez dela ikasiko dute ete berriz eraikitzeko aukera dutela. Suntsipena ere plazer bilakatzen da.

Marrazkiak, aldiz, plano altuago batean egiten dira, mahai batean normalean koloretako errotuladoreak edo argizarizko margoak eta orri zuriak erabiliz. Banaka egiten den ekintza bat da. Atal honetan hezitzaileak ez du haurraren marrazkia interpretatu behar, haurrari bere marrazkia hitzez adierazteko eskatu behar dio. Izan ere, horrek deszentratze prozesuan laguntzen du, egozentrismoa gaindituz.

Deszentratzeak sentimenduetan oinarritutako erreferentziatik irteten laguntzen du, norbera eta kanpoko errealitatea bereiziz. Hau da, haurrak ikuspuntu egozentrikoa du, lehenengo urtetan ikuspegi propioa izango du kontuan baina deszentratzea ematen den unean ikusputu hori eraldatu egiten da eta bere errealitateaz aparte beste errealitate batzuk badaudela ulertzen hasten da. Horrekin batera ere, fantasia eta errealitatea bereizten hasten da eta besteen lekuan jartzen ikasten hasten da, hots, empatizatzen. Deszentratzearen ondorioz, aldaketa bat gertatzen da nortasunean eta sozializazioa garatzen hasten da, harreman eta ikuspuntu objektiboagoa lortze dute pertsonekin, objektuekin edota espazioarekin (Aucouturier, 2011).

#### E) AMAIERA ERRITUALA

Saioari amaiera emateko bukaerako errituala oso garrantzitsua da. Izan ere, erritualarekin hurrek saioa amaitu dela hautematen dute. Haurraren adina kontuan izanik, erritual ezberdinak egin daitezke. Esate baterako, denen artean abesti bat kantatzea, agurra egitea eskua emanez, etab.

#### F) MATERIALA JASOTZEA

Psikomotrizitate gelatik irten baino lehen erabili den material guztia jaso behar da. Hau da, hurrek hasiera batean gela aurkitu duten moduan utzi beharra dute beste ikaskideentzat. Alabaina, askotan ezinezkoa izaten da hori egitea, izan ere, materiala jasotzeko unean haur asko jolasten hasten direlako. Hori horrela izanik, egoera horren aurrean talde txikiak sortzen dira gelako materiala jasotzeko.

#### 1.2.4 HEZITZAILEAREN PAPERA

Nahiz eta Espainian psikomotrizitatea eskola askotan praktikan jartzen den, gaur egun oraindik ere ez dago errekonozimendu sozial eta akademikorik psikomotrizistaren irudian; Elena Herran, Psikomotrizitatean diplomatuaren hitzek argi azaltzen dute psikomotrizista eta hezitzailearen artean aurkitzen den harremana:

“Un educador y un psicomotricista tienen mucho en común. Todos los educadores de infantil tienen que tener una formación muy profunda en psicomotricidad pero no exclusivamente para ser psicomotricistas. Ser psicomotricista puede ser una circunstancia. Simplemente se trata de que tengan una manera de entender al niño, porque tanto el psicomotricista como el educador tienen que ser especialistas en emocionalidad; en emociones y en actitudes, porque la actitud no es más que la emoción pasada a limpio” (Herrán, 2014).

Hori kontuan izanik, azpimarratu behar da, psikomotrizista eta hezitzailearen jarrera antzekoak direla eta beraien rola funtsezkoa dela praktika psikomotorra aurrera eramanez izateko. Izan ere, hezitzaile eta haurraren arteko gertutasuna lortu behar da ondoren, hezitzaileak haurraren adierazgarritasuna ulertzeko eta erantzun egoki bat emateko (Sanchez eta Llorca, 2008).

Sanchez eta Llorcaren (2008) esanetan, psikomotrizista baten perfil profesionalak honako sei dimentsio hauek bete behar ditu:

- 1- Behatzeko eta entzuteko gaitasuna.
- 2- Psikomotrizitatearen adierazgarritasuna.
- 3- Jokoan, inplikazio estrategia ezberdinak erabiltzeko gai izatea, haurrak garapen egoki bat izateko.
- 4- Psikomotrizitate praktikan jartzeko testuinguru ezberdinak sormenaren bidez eraikitzeko gai izatea.
- 5- Gainontzeko profesionalekin eta familiarekin komunikatzeko gaitasuna.
- 6- Behatzeko gaitasuna.


Dimentsio horiek psikomotrizistaren paperarekin lotura zuzena dute baina hezitzaile batek ere dimentsio horiek bete ditzake. Hori horrela izanik, bi autore horiek psikomotrizistari eta hezitzaileari zuzendutako behaketa taulak sortu zituzten.



Aucouturierrentzat ere hezitzailearen jarrera oso garrantzitsua da Praktika Psikomotorrean. Bertan, hezitzaileak zenbait helburu bete behar ditu baina funtsezko ezaugarria komunikazioa da. Hau da, hezitzaileak haurra entzun behar du, haurrari hitza eman behar dio bere buruaz mintza dadin lagunduz (Aucouturier In Hik Hasi, 2004). Ez du haurrak esandakoa soilik entzun behar baizik eta haurrak egiten duena eta nola dagoen ere behatu eta aztertu behar du eta honen arabera proiektu pedagogiko bat elaboratu (Bernaldo, 2012).

Camps Aucouturierrekin bat dator eta berarentzat ere hezitzaileak entzuteko gaitasuna izan behar du. Hala nola, hezitzailea haurraren emozioen aurrean sentikorra izan behar da baina gehiegi indartu gabe, eta sortzen den harreman afektiboaren bitartez hezitzaileak eboluzionatzen lagundu behar du. Horren bidez, haurra babestua, errespetatua eta onartua sentitzen da eta bere buruaz fidatzen hasten da (Camps, 2008).

#### 6. eskema. Hezitzailearen papera (Camps, 2008)



Bestalde, Aucouturierrek dio hezitzaileak segurtasuna transmititu behar duela, hau da, lege-segurtasun figura izan behar duela. Izan ere, psikomotrizitate gelan hezitzailea

erreferente bat da non hurrari neurritsua izaten eta egituratzen laguntzen dion (Beñaran, 2017). Horrez gain, hezitzailea psikomotrizitate ordenaren ikurra bilakatzen da (Bernaldo, 2012).

Era berean, hezitzaileak kide sinbolikoa izateko gaitasuna lortu behar du. Hau da, hezitzaileak egoera baten aurrean ekintzan edo jolasean lagundu eta zuzendu egin behar du, beti ere zentzua emanaz (Beñaran, 2017).

## 2. HELBURUAK

Aurkeztutako lan honen helburu nagusia, Bernard Aucouturier autoreak praktika psikomotorrean ezarritako fase guztiak behar bezala praktikan jartzea da.

Horrez gain, beste helburu zehatz hauek ere kontuan hartzen dira aurkeztutako lanean:

- Bernard Aucouturierren metodologia nolakoa den aztertzea, ezagutzea eta ezarritako helburuaz jabetzea.
- Praktika psikomotorraren sorreraz jabetzea eta saioaren ondoz ondoko faseen edukiak ezagutzea.
- Psikomotrizitate saio baten ahuleziak eta indarguneak detektatzearen garrantziaz jabetzea, ondoren hobekuntza ildoak zehazteko.
- Praktika psikomotorraren helburuak ardatz hartuta, proposamen praktiko bat sortu eta aurrera eramatea
- Hezitzailearen jarrera aztertzea.

## 3. METODOLOGIA

Ondorengo orrialdetan, gauzaturiko lanaren metodologia zein izan den azalduko dut. Horretarako, bi fase ezberdin bereiztuko dira; alde batetik, proiektuan zehar egindako behaketak azalduko dira, hau aurrera eraman ahala detektatuko ahuleziak adieraziz. Beste aldetik, diseinatutako proiektua azalduko da, honek praktikan zer nolako erantzuna izan duen adieraziz.

### 3.1 BEHAKETAK

Hirugarren praktikaldia Mutrikun kokatua dagoen *Goizeko Izarra* izeneko ikastola publikoan burutu nituen hiru hilabetez, eta denbora tarte horretan bertako psikomotrizitate gela bisitatzeko aukera izan nuen. Egoera hori aprobetxatuz Gradu Amaierako Lana bertako hurrekin egitea pentsatu nuen; lau urteko hurrekin, hain zuzen ere.

Bost saio behatu nituen, guztietan, hezitzailearen jarrera eta nondik-norakoak behatzen aritu nintzen. Hau da, psikomotrizitate saioak nola bideratzen zituen behatu nituen; zein autore erabiltzen zituen erreferentzia moduan, zein metodologia jartzen zuen praktikan, jarduera bakoitzean ze material erabiltzen zituen, jarrera, etab. Irakasleak, Bernard Aucouturier autoreak sortutako praktika psikomotorreko hiru fase lantzen zituen beste hiru faseak kontuan hartu gabe. Gelara sartu eta sarrera erritualarekin hasten ziren: lehenengo eta behin irakasleak zapatak eta berokiak kentzeko adierazten zuen eta haurrak bakuan esertzean arauak denen artean birpasatzen zituzten, ondoren haurrak suntsipena egiteko prestatuz. Jarraian, adierazkortasun motorraren fasea lantzen zuten, hormaren suntsipenarekin hasiz eta gero, haurrak libreki jolasten uzten zituen. Saioarekin amaitzeko, amaierako errituala lantzen zuten, hemen oinetakoak eta berokiak jantzen zituzten eta ondoren, psikomotrizitateko gelatik irteten ziren. Haurrak oinetakoak eta berokiak jantzen zuten bitartean irakasleak saioan zehar erabilitako materiala jasotzen zuen.

Hori ikustean ohartu nitzen, irakasleak ez zituela ezagutzen praktika psikomotorreko fase guztiak, izan ere, bere saioetan hizkuntzaren fasea, adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea eta materiala jasotzeko fasea falta ziren. Horrez gain, ez zuen ezagutzarik fase bakoitzean erabili behar diren material espezifikoei buruz. Hobekuntza ildoak planteatu eta proposamen praktiko bat egitea pentsatu nuen. Baina ezer baino lehen, irakaslearekin elkarrizketa bat izan nuen non behaketak partekatu nituen eta nire asmoa zein izango zen azaldu nion; Bernard Aucouturierren sei faseetatik hiru betetzen zuenez (hasierako errituala, adierazkortasun motorra eta amaierako errituala) proposamen bat diseinatzea beste hiru faseak ere lantzeko; hizkuntzaren fasea, adierazkortasun plastika eta grafikoaren fasea eta materiala jasotzea. Eta behin diseinatu ondoren, hurrekin praktikan jartzea.

Irakasleak proposamenaren aurrean jarrera egokia izan zuen. Berarentzat proposamen praktikoa nola egingo nuen eta nola jarriko nuen praktikan ikustea aberasgarria izango litzatekela adierazi zidan, eta gerora berak hurrekin martxan jartzeko baliabide gisa erabiliko zuela adierazi zidan. Horrez gain, proposamena egiterako orduan erabilitako baliabideak eta erreferenteak berarekin partekatzea eskatu zidan, Bernard Aucouturierren inguruko metodologia gertutik ezagutzeko eta autoreak sortutako praktika psikomotorraren inguruaz jabetzeko.

Saioen behaketez aparte, irakaslearen jarrera behatzeko aukera ere izan nuen. Horretarako, Aucouturierren ideiak kontuan hartu nituen berarentzat hezitzaileak nolako jarrera izan behar duen ezagutzeko asmoz. Beste autoreen ideiak ere kontuan hartu ditut; Sanchez eta Llorca (2008) autoreek eginiko behaketa taulak erabili nituen erreferentzia moduan. Irakaslearen jarrera bost saiotan behatzea pentsatu nuen eta bakoitzean behaketa taula bat betetzea. Autoreek sortutako behaketa tauletan hiru puntu hartzen dira kontuan; behatzeko eta entzuteko gaitasuna, psikomotrizitatearen adierazgarritasuna eta jokoan, inplikazio estrategia ezberdinak erabiltzeko gai izatea.

Behin behaketa guztiak egin ondoren, Bernard Aucouturierren metodologia sakon aztertzen eta praktika psikomotorraren inguruan informatzen hasi nintzen. Helburu nagusia berak sortutako praktika psikomotorraren fase guztiak hurrekin lantzea zenez, lehenengo eta behin fase guztien ondoz ondoko edukiak ezagutu behar nituen osotasunean.

Proposamena diseinatzen amaitu ondoren, ikastetxeko irakaslearekin partekatu nuen eginiko lana; fase guztiak azaldu nituen, bakoitzean erabili behar diren materialak eta egin beharrekoak azalduz, eta ondoren hurrekin praktikan jartzea adostu genuen. Prestatutako saioa egun baten egiteko aukera izan nuen hezitzaile papera hartuz. Irakaslea gelan aurkitzen zen baina, kasu honetan, grabaketa lanak egiten.

## 3.2 TESTUINGURUAREN DESKRIBAPENA

### 3.2.1 IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA

Diseinatutako proposamena Mutrikuko Goizeko Izarra ikastola publikoan burutu nuen, nahiz eta ikastola izena mantendu, gaur egun ikastetxe publikoa da. Izan ere,

1993. urtean eginiko gurasoen eta irakasleen arteko hauteskunde baten ondoren, pribatu izatetik publiko izatera igaro zen. Bertan D ereduak soilik eskaintzen da eta gaur egun 288 ikasle daude matrikulaturik. Ikasle gehienak herrikoak dira, euskaldunak baina hala ere, azken urteetan atzerriko haurren gorakada nabaria izan da, batez ere, Senegaldar, Maroko eta Hego Amerikarrena. Horrez gain, Mutriku oso testuinguru euskalduna denez, atzeritik etortzen diren eta euskaraz hitz egiten ez dakiten ikasleen gehiengoak, segitua ikasten dute arazorik gabe. Goizeko Izarra ikastola hainbat proiektutan murgilduta dago; IKKI proiektua, Hizkuntza Normalkuntza Programa eta IKT-ak, besteak beste.

Ikastetxe honen helburu nagusia ikasleak euskal irakaskuntzan haztea, heztea eta bizitzea da. Hezkuntza integrala bilatuz, hainbat balore lantzen dituzte, hezkidetza eta elkartasuna, besteak-beste. Metodologia konstruktibistan oinarrituz irakatsi nahi dute, ikasleek dakitenetik abiatzen dira ikasketa esanguratsua izan dadin.

### 3.2.2 GELARI BURUZKO DESKRIBAPENA

Gela lau urteko hamazazpi umek osatzen dute; orokorrean talde mugitua eta berritsua da, baina oso parte hartzaileak. Jolas edo ekintza berri baten aurreran askotan urduri jartzen dira ez dakitelako zer gertatuko den baina, dena lasai eta egoki azalduz, ez dago aurrera egiteko arazorik.

Gela, handia eta argitsua izateaz gain, espazioa txoko ezberdinetan antolatuta dago; irakurketa eta idazketa txokoa, poliki-poliki hizkiekin familiarizatzeko eta ipuinak irakurtzeko leku aproposa dena; mahai jolasen txokoa, era askotako puzzleak eta jolasak egiten dituzten lekua; marrazketa txokoa; zientzia txokoa, esperimendazioa eta zientziarekin zerikusia duten jolasak erabiltzeko lekua, beraien sormena eta irudimena martxan jarritz; eta azkenik, etxe txokoa, esan beharra dago hau gehien gustatzen zaien txokoa dela, izan ere, bertan duten materialekin eta imajinazioa erabiliz rol ezberdinak hartzen dituzte eta jolas sinbolikoan aritzen dira (dendaria, medikua, ama, aita, umea, etab.).

Ondoko gelan, aldiz, antzerki, eraikuntza, marrazketa, irakurketa, idazketa eta plastika txokoak aurkitzen dira. Haur gehienek azken txokoa dute gustukoena, izan ere, bertan denetarikoa produkzioak egiteko aukera izaten dute, beraien sormena eta

irudimena martxan jarriz. Esperimentazio txokoa ere gustukoa dute, bertan elikagai ezberdinekin eta urarekin esperimentatzeko aukera anitza izaten dutelako.

Aurten zirkulazio librea martxan jarri dutenez, haurrak bi geletako txokoetan egoteko aukera dute. Hau da, asteko ordu zehatz batzuetan bi geletako ateak irekitzen dira eta norberak erabakitzen du ze txokotara joan, nahiaren, desioaren edota gogoaren arabera. Horrez gain, norberak erabakitzen du noiz amaitu edota aldatu txokoz.

Psikomotrizitate gela, eraikinaren kanpoaldean dago kokatuta, hots, sarrera nagusitik gertu. Lau urteko haurrak astero ostiral arratsaldetan izaten dituzte psikomotrizitate saioak eta saio horien iraupena bi ordukoa izaten da. Bazkaldu ondoren, 14:00etan, ikasle guztiak ohiko gelan batu eta irakaslearekin batera psikomotrizitate gelara abiatzen dira. Psikomotrizitate gela eraikinaren kanpo aldean aurkitzen denez, haurrak isiltasun osoz irten behar dira ohiko gelatik, izan ere, ordu horietan ikastolan aurkitzen diren ikasle guztiak gelan egoteaz aparte, bi urteko haurrak siesta orduan aurkitzen dira.

Psikomotrizitate gela, nahiko argitsua da; hormen goiko aldean leihatila txikiak aurkitzen dira eta haietatik argi naturala sartzen da. Orokorrean bero egiten duen gela bat da eta hori hurrek segituan nabaritzen dute, mugimenduaren fasea hasi bezain pronto izerditan hasten baitira eta soinean duten kamiseta kentzen hasten dira. Gainera, espazioaren aldetik psikomotrizitate gela ez da oso handia. Lehenengo eta bigarren praktikak burutu nituen ikastetxeetako psikomotrizitate gelak handiagoak ziren, oraingoarekin alderatuz. Aucouturierrek dispositibo espazialari buruz dioena kontuan hartuz, espazioa bi zatitan banatuta dago. Alde batetik, espazio txiki bat dago eta bertan mahai handi bat eta zurezko hainbat banku daude haurrak bertan esertzeko, eta hormetan, ordea, ispilu bat eta esekitokiak. Badago espazio handiago bat, non, goma- aparreko bloke handiak aurkitzen diren, hormako barrak, igotzeko sokak eta zintzilikatze sokak, besteak beste.

Psikomotrizitate gelan sartzeko eta irteteko atez aparte, beste ate bat dago eta bertan material gela eta komuna aurkitzen dira. Material gelan oihalak, mantak, goma- aparreko makilak, paperak, aroak eta puxikak daude baina irakaslearen baimenik gabe bertako materiala ezin da atera, eta behin aterata jasotzerako orduan berriro ere bere tokian uzten da.

## 4. PROPOSAMEN PRAKTIKOA

Atal honetan, diseinatutako proposamen praktikoa hurrekin praktikara eramatean bizi izandako esperientzia deskribatuko dut. Horretarako, sei minutuko bideoa egin dut non saio batean gertatutakoa adierazten den argazki zein bideo ezberdinen bidez. Hurrekin grabaketa egiteko gurasoen zein ikastetxearen baimena kudeatu behar izan nituen. Eginiko saioa, Bernard Aucouturierrek adierazten duen bezala, sei fasez osatuta dago eta iraupenaren aldetik, gutxi gorabehera, lehenengo faseak 13 minutu iraun zuen; bigarren faseak 40 minutu; hirugarren faseak 10 minutu; laugarren faseak, 13 minutu; bostgarren faseak 10 minutu eta amaitzeko, seigarren faseak 7 minutu. Kontuan hartu beharra da, orokorrean, psikomotrizitate saioaren iraupena bi ordukoa zela.

### 1. *Hasierako erritual*

Lehenengo eta behin, hasierako erritualarekin hasi nintzen. Gelara sartu eta ezer esan baino lehen, haurrak zapatak eta jertseak kentzen hasi ziren beraien iniziatibaz. Ondoren, bankuan jesarriz. Hori aprobetxatuz, lurrean jesarri nintzen beraien aurrean, haien tamainara egokituz, eta elkarrekin arauak birpasatu genituen. Une hori ez zen oso lasai izan, izan ere, ia haur guztiek momentu berean zerbait esateko nahia izateaz aparte, bankutik altxatzen ziren eta, tamalez, ez ziren elkar entzuten. Egoera horren aurrean, haurrak esertzen eta isiltasuna mantentzen saiatu nintzen esanez, beste kideak esandakoa ez zutela entzuten. Ondoren, bi espazioak azaldu nizkien; lehenengo espazio handian jolastuko genuela eta gero, espazio txikian. Atal honekin amaitzeko, aurretik prestatuta utzi nuen aparrezko blokeen horma suntsitzeko prestatu ziren.

Orokorrean hasierako errituala nahiko ondo ezagutzen zuten irakasleak eginiko saioetan lantzen zutelako, baina esan beharra dago, behatutako saioetan ere horrelako jarrerak izaten zutela; urduri jartzen ziren eta ez zuten elkar entzuten. Horrez gain, bi espazioez hitz egiterakoan haurrak harrিতa geratu ziren irakasleak espazioari buruz azalpenik ematen ez duelako eta kontzeptu hori beraiantzat berria zelako.

## 2. Adierazkortasun motorraren fasea

Saioarekin jarraituz, bigarren faseari, adierazkortasun motorraren faseari, hasiera eman genion horma suntsituz, baina suntsipena egin baino lehen haurren ezinegona eta urduritasuna ikusirik, tentsio egoera hori mantentzen saiatu nintzen. Izan ere, beraien helburua eraikuntza denen artean suntsitzea zen eta hori ikusirik jolasteko desioa askatzeko beharra zutela ikusi nuen. Horrez gain, haurrek beraien inpultsoak kontrolatzen eta eusten ikasten hasi ziren. “*Bat, bi eta hiru*” esandakoan haurrek horma suntsitu zuten eta espazio handian jolasten hasi ziren, bertan aurkitzen ziren materialak erabiliz. Goma-aparreko bloke handiak maneiatzen zituzten alde batetik bestera, hormako barretatik igotzen ziren eta behin goian zeudela salto egiten zuten koltxonetara, igotzeko sokak erabiltzen zituzten gorputza zintzilikatuz eta zintzilikatutako sokak ere erabiltzen zituzten, zabua bezala gorputza kulunkatuz.

Denbora tarte bat igaro ondoren, material gelatik oihalak, mantak eta goma-aparreko makilak atera nituen. Fase honetan jolas sinbolikoa ikusteaz aparte, segurantz sakoneko jolasak ikusteko aukera ere izan nituen. Esate baterako, haur batzuk norbere burua ezkututzen zuten manta handi baten azpian, edota goma-aparreko zilindro baten barruan. Jolas sinbolikoari dagokionez, haurrak, eta gehien bat neskak, goma-aparreko blokeak erabiliz etxea eraikitzen aritu ziren, ondoren familiaren rola imitatuz. Bizpahiru mutilen kasuan, aldiz, zenbait oihal erabiliz jolas sinbolikoa lantzen hasi ziren; bata, oihala ipurdian jarri eta otsoaren egiten hasi zen eta besteak, goma-aparreko makilak hartu eta ezpata izango balitz bezala otsoa harrapatzen aritu ziren.

Fase hau ere irakasleak eginiko saioetan lantzen zutenez, ez zen arazorik egon, baina egia da hasiera batean denak leku berean jolasten egotetik, gero espazioan desplazatuta egotera pasa zirela.

## 3. Hizkuntzaren fasea (Istoria)

Hizkuntzaren fasearekin, mugimenduaren faseari amaiera eman genion. Lehenengo eta behin, hurrei gerturatzeko esan eta ipuin bat kontatuko niela adierazi nien. Kontatutako ipuinak *Jonas eta hozkailu beldurtia* (Kruz, 1998) izena zuen eta hurrei ipuin hori irakurtzea pentsatu nuen istorioak bi erregistro dituelako. Beldur puntu bat du protagonista etxean bakarrik gelditzen delako eta bitarte horretan hozkailuan gauza



arraroak sumatzen dituelako. Bestalde, segurtasuna eta lasaitasuna ere nabaria da ama etxera bueltatzen denean eta protagonistari lasaitzen saiatzen den unean. Horrez gain, istorio honetan errepikapena ematen da, esate baterako; protagonistak behin eta berriz mugimendu berdina egiten du gorputzaren atal batekin eta aldi berean, galdera berdinak egiten ditu. Ipuinak errepikapenak izateak haurrari segurtasuna transmititzen dio hurrengo orrietan berdina gertatuko dela pentsatuko duelako.

Fase hau irakaslearen psikomotrizitate saioan ez da lantzen, beraz, lehenengo aldia zen. Orokorrean lasaitasun eta isiltasun osoz entzun zuten istorioa lurrean eserita baina, egia da, batzuk tente mantendu zirela istorio guztian zehar eta ez zutela istorioa arreta handiz entzun.

#### *4. Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea*

Aurreko fasea amaitu ondoren, adierazkortasun plastiko eta grafikoaren faseari hasiera eman zitzaion. Lehendabizi, bigarren espazioa erabiliko genuela azaldu nien marrazteko edo eraikinak egiteko aukera zutela adieraziz. Marrazkiak egiteko orri zuriak eta koloredun margoak erabili zituzten, eta gelako baliabideak ikusirik orriak bankuaren gainean jarri zituzten margotzeko asmoz, mahairik ez baitzegoen. Eraikinak, aldiz, lurrean egiten hasi ziren zurezko materialak erabiliz. Hasiera batean, bakarka eraikitzen hasi ziren baina segituan elkartu ziren eraikin kolektibo bat egiteko asmoz, gaztelu bat hain zuzen ere.

Fase hau ere, aurrekoa bezala, ohiko psikomotrizitate saioan ez dute lantzen; lehenengo aldiz aritu ziren marrazkiak eta eraikinak egiten eta, esan beharra dago, jarrera egokia izan zutela fase guztian zehar. Lasaitasun osoz aritzeaz aparte, uneoro ordena mantendu zuten eta elkar errespetatu zuten.

#### *5. Materiala jasotzea*

Amaieran saioan zehar erabilitako material guztia jaso behar zen, beraz, marrazten amaitu zuten lehenengo hiru pertsonen artean gelako materiala jasotzen aritu ziren besteak marrazten eta eraikitzen amaitzen zeuden bitartean.

Fase hau beraientzat berria zenez, laguntza eskatu zidaten galdetuz ea non jarri behar zituzten goma-aparreko blokeak horma eraikitzeko. Beraz, hasieran beraiekin jasotzen aritu nintzen ikusteko non eta nola jarri behar zituzten blokeak. Beste materialak jasotzerako orduan, aldiz, oihalak, mantak eta goma-aparreko makilak, ez zuten arazorik izan; dena kutxatan batu zituzten eta material gelara eman zituzten.

## 6. *Irteera errituala*

Saioarekin amaitzeko hurrekin irteerako errituala egin genuen; lehenengo eta behin, zapatak eta jertseak jantzi zituzten eta denak prest zeudela, psikomotrizitate gelatik irten ziren ohiko gelara joateko. Irteera egiterakoan, agurra landu genuen elkarren eskuak talka eginez.

Irakaslearen saioetan fase hau lantzen zuten baina agurrik egin gabe eta nire ustetan, oso garrantzitsua da agurra egitea haurrak saioa amaitu dela ohartu behar direlako. Beraz, eskuak elkar talka egiterakoan harrিতa geratu ziren, inoiz ez baitzuten horrelakorik egin irakaslearekin.

### ❖ Hezitzailearen jarrera:

Praktikara eraman nuen psikomotrizitate saioan zehar Bernard Aucouturierren ustez hezitzaileak izan behar dituen ezaugarriak kontuan hartu nituen; komunikazioa landu nuen hurrek esandakoa entzunez eta haiei hitza emanez. Horrez gain, uneoro haurrak egiten zutena behatzen eta aztertzen aritu nintzen, behar izanez gero zuzenduz edota laguntza eskainiz.

Esan beharra dago, saio bakarra egiteko aukera izan dudanez, haurren prozesua ikusteko eta ebaluatzeko gogoekin gelditu naizela. Izan ere, saio bakar batekin ezin da haurren jarrera ondo ebaluatu ezta haurren prozesua gertutik behatu eta aztertu. Beraz, proposamen praktikoa behin eta berriz martxan jartzeko aukera izango banu, haurren jarrerak ebaluatzeko aukera izateaz gain, hurrei egokituz moldaketak egingo nituen, haien beharren arabera, alegia.

Eginiko lan honen bitartez, etorkizuneko ikerketa baten ildoak ireki dit. Hau da, saio bakarria eginez metodologia eta lan egiteko modua finkatu dit etorkizunean edo aukera dudanean burutu dudak ikerketa saio gehiagotan aplikatu ahal izateko. Beraz, aberasgarria izan da eraikuntza prozesua eta ikerketaren emaitza gertutik ikustea, arestian aipatu dudak bezala, etorkizun batean nik eginiko lana erabiltzeko aukera izango dudalako. Eta ez hori bakarrik, psikomotrizitate gelan hezitzaile lanean ari den edonork ere ikerketa hau erabiltzeko aukera izango du.

## 5. ONDORIOAK

Lehenik eta behin, hezitzaileen kasuan psikomotrizitatearen gaia gertutik lantzea edota formakuntzak jasotzea beharrezkoa ikusten dut. Kasu askotan, hezitzaileek adituen izenak ezagutzen dituzte baina beraien metodologia eta sortutako ideiak ez eta horregatik ez dira psikomotrizitate saioak behar bezala aurrera eramaten. Beraz, hezitzaileen psikomotrizitatearen inguruan izan beharreko formakuntzan enfasi berezia jarriko nuke.

Aucouturierren metodologiako fase guztiak behar bezala praktikan jartzea garrantzitsua iruditzen zait. Normalean hizkuntzaren faseari ez zaio behar duen garrantzia ematen eta nire ustetan, beste fase guztiak bezainbestekoa du. Izan ere, ipuinaren bidez lasaitasun giroa sortzeaz gain, segurantzaren emozionala ere sortzen da eta hurren sinbolizatzeko mailan pausu batean murrizten da; deszentratze prozesuan ere berebiziko garrantzia du. Honekin batera, garrantzitsua da hezitzaileek Aucouturierrek proposatzen dituen bi erregistroak ezagutzea eta jarraitzea, hau da, larrimina handitzea eta segurantzaren oinarrietara itzultzea, eta ipuinak helburu jakin batekin aukeratzea.

Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasea behar bezala betetzea ere garrantzitsua iruditzen zait, haurrak eraikin eta margoen bitartez saioan bizi izandako esperientzia adierazteko gai direlako. Horrekin batera, deszentratze prozesuari esker norbera eta kanpoko munduaren errealitatea bereizten hasten dira eta horri esker, harreman eta ikuspuntu objektiboagoa lortzen dute pertsonekin, objektuekin edota espazioarekin.

Saioaren iraupenari dagokionean, garrantzitsua da alde aurretik saioa egituratzea fase guztiak behar bezala betetzeko helburuarekin. Hau da, saioaren egitura askotan ez

da behar bezala aurrera eramaten denbora faltagatik, beraz, nire ustetan bizi izandako esperientzia kontuan hartuz, saioak bi ordu edo ordu eta erdiko iraupena izatea proposatzen dut. Horrela, fase guztiak behar bezala aurrera eramateko aukera dago.

Hezitzailearen jarrerari dagokionez, funtsezkoa iruditzen zait hezitzaileak behaketa taulak eraikitzea haur bakoitzaren garapena nolakoa izan den aztertzeko eta horren harira, behar izanez gero moldaketak eta proposamen berriak egiteko. Behar izanez gero, psikomotrizitate gelan bizi izandakoa, zalantzak eta proposamenak beste hezitzaileekin partekatzea aukera egokia iruditzen zait, beti ere elkar laguntzeko helburuarekin.

Hezitzailearen papera garrantzitsua da psikomotrizitate gelan. Haurrari lasaitasuna, segurtasuna eta konfiantza transmititzen saiatu behar du, haurra espazio egoki eta lasai batean dagoela sentiarazteko eta bien arteko komunikazioa sustatzeko. Izan ere, komunikazioak izugarriko garrantzia du, haurrak uneoro bilatzen du komunikazioa (hitzezkoa eta ez-hitzezkoa) jolas edota ekintzen bidez eta hezitzaileak hori ulertu eta jaso egin behar du erantzun egoki bat eman ahal izateko, proposamenak egin ahal izateko, etab. Psikomotrizitate gelan haurrak izandako portaerak eta keinuan eta bertan bizi izandako sentimenduak interpretatzen lan egin behar du.

Haurrak protagonista bilakatu behar du eta laguntza behar izanez gero hezitzaileak laguntza eskainiko dio baina haurraren jolasean parte hartu gabe. Hau da, haurra libreki jolasten utzi behar du eta zerbait nahi izanez gero horren aurrean interesa transmititu behar du, esate baterako, galderak eginez. Argi izan behar du orokorrean bere jarrera behatzailea dela eta horrek suposatzen duen garrantzia metodologia konkretu horretan. Haur bakoitzaren garapen prozesuaz jabetu behar du eta horren harira erantzun bat eman behar du egoera eta material ezberdinak eskainiz, baina beti ere haurraren beharren arabera ezer egitera behartu gabe.

Etorkizunera begiratzuz, egindako lan honen bitartez, lan ildoak eta metodologia finkatzeko aukera izan dut eta ikerketa zabalago bati atea irekita uzten diot behin eta berriz, azpimarratuz eskolan psikomotrizitateari merezi duen pisua eman behar zaiola.

## 6. ERREFERENTZIAK

- Abad, J. (2011a). Experiencia Estética y Arte de Participación: Juego, Símbolo y Celebración. *La educación artística como instrumento de integración intercultural y social*, 37. Berreskuratuta: [http://www.oei.es/artistica/experiencia\\_estetica\\_artistica.pdf](http://www.oei.es/artistica/experiencia_estetica_artistica.pdf).
- Agudo, I. (1990). El juego en el área de la expresión corporal. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, (7), 101-111. Berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=117704>
- Aucouturier, B. (2004). Aucouturier, Bernard. *Hik Hasi*, (84), 14-21. Berreskuratua: [http://www.hikhasi.eus/uploads/erab\\_1/2004/01/1498220262-084.%20alea.pdf](http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2004/01/1498220262-084.%20alea.pdf)
- Aucouturier, B. (2011). *Aucouturier metodoa: ekintza-fantasmak eta praktika psikomotorra*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua.
- Barruezo, P. (2000) Hacia un marco conceptual de la psicomotricidad a partir del desarrollo de su práctica en Europa y en España. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, (37), 21-33. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=118056>
- Beñaran, A. (2017). Pedagogo sortzaileak: Bernard Aucouturier. *Hik Hasi*, (215), 30-34. Berreskuratua: [http://www.hikhasi.eus/uploads/erab\\_1/2017/02/1518591886-215.hh-osoan.pdf](http://www.hikhasi.eus/uploads/erab_1/2017/02/1518591886-215.hh-osoan.pdf)
- Bernaldo, M. (2012). *Psicomotricidad: guía de evaluación e intervención*. Madril, Espainia: Pirámide.
- Camps, C. (2008). La observación de la intervención del psicomotricista: actitudes y manifestaciones de la transferencia 1. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 62 (22,2), 123-154. Berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2707410.pdf>
- García, M. (2018). Non dago gorputza eskolan? *Argia*. Berreskuratuta: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2584/non-dago-gorputza-eskolan>

- Herrán, E. (2014). Entrevista a Elena Herrán. *Cuadernos de Psicomotricidad*, (48).  
Berreskuratua: <http://www.cuadernosdepsicomotricidad.es/index.php/es/revista-n-48/entrevista-a-elena-herran.html#.XPVRmYqzblU>
- Kruz, J. (1998). *Jonas eta hozkailu beldurtia*. Bilbo: Aizkorri.
- Lizaso, I., Reizabal, L., Aizpurua, A. eta Sanchez, M. (2013). Garapenaren psikologiaren ikuspegi historikoa: diziplinaren sorrera eta finkapena. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (87), 71-90. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4528692>
- Meroto, T. (2017). *Sorgina Kirris Karras*. Tafalla: Txalaparta.
- Morón, C. (2011). El juego dramático en Educación Infantil. *Temas para la Educación revista digital para profesionales de la enseñanza*, (12), 1-6. Berreskuratua: <https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd7915.pdf>
- Sánchez, J. eta Llorca, M. (2008). El rol del psicomotricista. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 62 (22,2), 35-60. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2707341>
- Pacheco, G. (2015). *Psicomotricidad en educación inicial*. Quito, Ecuador: ISBN.
- Paniagua, G. eta Palacios, J. (2005) *Educación Infantil: Respuesta educativa a la diversidad*. Madril, Espainia: Alianza.
- Quiros, V. eta Arraez, J.(2005). Juego y psicomotricidad (Primera parte). *RETOS. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación* (8), 24-31.  
Berreskuratua: <http://www.redalyc.org/pdf/3457/345732273004.pdf>
- Tapia, L., Azaña, E. eta Tito, A. (2014). Teoría básica de la educación psicomotriz. *Horizonte de la ciencia*, 4 (7), 65-68. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5420537>
- Vizcarra, M. T. (2007). *Garapen psikomotorra Haur Hezkuntzan (0-6 urte)*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Argitalpen Zerbitzua.

## 7. ERANSKINAK

### 1. Eranskina

2018ko abenduaren 7an irakasleari eginiko behaketa taula.

2018-12-07  
Gareto Izarra Iba

Josefina Sánchez Rodríguez y Miguel Llorca Linares

#### GUIÓN DE OBSERVACIÓN DEL PSICOMOTRICISTA

	No	A veces	Siempre
<b>CAPACIDAD DE OBSERVACIÓN Y ESCUCHA</b>			
1. Se para a observar al grupo para intervenir		X	
2. Atención al grupo en la acción (mirada periférica)		X	
3. Interactúa con los diferentes niños y niñas del grupo	X		
¿A quiénes se acerca más?			
¿A quiénes se acerca menos?			
¿A quiénes ignora?			
4. Capacidad de escucha			
Hace muchas propuestas de juego	X		
Espera por la iniciativa de juego del grupo			
Trata de reconducir el juego del grupo		X	
Deja hacer al grupo sin intervenir			X
Atiende a las demandas del niño/a de manera ajustada		X	
5. Moviliza, participa en diferentes tipos de juegos durante la sesión	X		
<b>EXPRESIVIDAD PSICOMOTRIZ</b>			
6. Expresividad en el juego			
Placer			
Empatía			X
Disponibilidad corporal			
Estado de ánimo			
7. Utilización de los mediadores en el acercamiento a los niños y niñas:			
- mirada			X
- lenguaje (voz/palabras)			X
- cuerpo			X
- objetos	X		
¿Con qué sentido, cómo los utiliza?			
<b>CAPACIDAD PARA UTILIZAR DIFERENTES ESTRATEGIAS DE IMPLICACIÓN EN EL JUEGO</b>			
8. Estrategias generales:			
- colaboración, acuerdo			
- sorpresa			

El rol del psicomotrista

	No	A veces	Siempre
- afirmación	X		
- refuerzo	X		
- invitación	X		
- provocación	X		
- contención	X		
- afectividad	X		
- imitación	X		
- frustración	X		
- favorece las relaciones entre iguales	X		
- propicia la autonomía de los niños y niñas del grupo		X	
<b>9. Mantener la seguridad del grupo: cómo ejerce el ser símbolo de ley</b>			
- Da seguridad al grupo			X
- Se muestra autoritario	X		
- Ridiculiza	X		
- Es permisivo		X	
- Permanece firme y claro			X
- Es discreto			X
- Utiliza el tiempo fuera			
- Intenta que el grupo se autorregule	X		
- Es flexible en función de las necesidades			X
- Se anticipa, angustia		X	
<b>10. Intervención en el ritual de entrada</b>			
- Mantiene el orden y silencio del grupo		X	
- Explica al grupo su proyecto de la sesión	X		
- Pregunta al grupo sobre los planes de juego	X		
- Ayuda al grupo en sus planificaciones	X		
- Se recuerdan las normas de la sesión			X
- Hay un ritual para iniciar la sesión	X		X
<b>11. Intervención en las actividades sensoriomotrices</b>			
- Favorece los juegos de sensibilidad profunda	X		
- Asegura	X		
- Contiene	X		
- Anima	X		
- Ayuda		X	



Josefina Sánchez Rodríguez y Miguel Llorca Linares

*Et Babutan (BA) BA*

	Nó	A veces	Siempre
Propone	X		
Inhibe			
Espacializa	X		
Imita	X		
<b>12. Intervención en los juegos simbólicos</b>			
Interviene ejerciendo un rol	X		
Enriquece el desarrollo del juego (hace evolucionar el juego, complejizarse)	X		
Favorece la verbalización. Realiza preguntas sobre el contenido de los juegos	X		
Crea juegos	X		
Utiliza el material y los espacios para andamiar los juegos (pone telas, construye casas...)	X	X	
Culpabiliza	X		
Frustra	X		
Evita el juego	X		
<b>13. Intervención en la finalización de la sesión</b>			
Facilita la vuelta a la calma	X		
Favorece el recuerdo de la sesión	X		
Fomenta la autonomía del grupo para recoger el material y calzarse		X	
Pregunta sobre lo sucedido en la sesión	X		
Realiza algún ritual de despedida de la sesión	X		
<b>14. Intervención en la representación</b>			
Ayuda mediante la utilización de dibujos, plastilina o maderas a la representación cuando se hace necesario			
Favorece la expresión de ideas antes de la ejecución			
Pregunta por el sentido de las representaciones de las niñas y niños			
Enriquece mediante sus preguntas la capacidad representativa del niño			
Invita a la representación a los que no quieren participar			
Utiliza refuerzos verbales, corporales			
Favorece el orden en el grupo, uso de normas			
Propicia el reconocimiento del trabajo individual por el grupo			

*Et DA LAUREN*

## 2. Eranskina

Adierazkortasun plastiko eta grafikoaren fasean hurrek eginiko marrazkiak.







### 3. Eranskina

Bideoa. 2018ko azaroan hezitzaileen saioaren garabaketa, Goizeko Izarra ikastolako psikomotrizitate gelan lau urteko haurrekin.

### 4. Eranskina

Bideoa. 2019ko maiatzean eginiko saio praktikoaren grabaketa, Goizeko Izarra ikastolako psikomotrizitate gelan lau urteko haurrekin.